



INNOVABIDE

INNOVABIDE Bide-Segurtasunaren kudeaketa hobetzeko euskal enpresen sare bat da. "Enpresetan laneko bide-Segurtasuna eta mugikortasun segurua kudeatzeko erreferentzia-esparruan" oinarritzen da.

INNOVABIDE SAREA Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak jarri zuen martxan 2017an.

Sarean parte hartzeak ez du inolako kosturik enpresentzat.



NOLA IZAN SAREAREN PARTAIDE

Partaide izateko, honako pausu hauek jarraitu behar dira:

1º) Zuen enpresako bide-segurtasunaren kudeaketaren diagnostiko bat egin. Horretarako erreferentziako dokumentu bat emango zaizue, praktika on eta orientabideekin modu erraz batean betetzeko laguntza gisa.

2º) Saretik, zuen enpresara joango gara **kontraste** bat eta hasierako dokumentu bat egitera. Dokumentu horrek lagunduko zaituzte zuen laneko bide-segurtasunaren hobetzen, zuen premia eta ezaugarriak kontuan hartuz beti. Kontrasteko bilera honek ez du 2 ordu baino gehiago irauten, normalean.



ZERGATIK ETA ZERTARAKO SARE BAT

- Istriputasuna gutxitzeko errepide eta hirietan, mugikortasun seguruaren kontzientzia areagotuz gainera.
- Lanerako joan-etorrian (in itinere) edo lanean ibilgailu bat gidatzen (in misión) gertatzen diren biktimen kopurua gutxitzea.
- Mugikortasun seguru eta jasagarria enpresen gehiengoak duen kezka bat da. Langileen sentsibilizazioa eta laneko bide-segurtasunak plazaratzen dituen erronkei aurre egitea suposatzen du.



NOR IZAN DAITEKE INNOVABIDEREN PARTAIDE

Edozein Euskal Enpresak, bere arlo edo tamainari begiratu gabe, parte har dezake doako Sare honetan.

Gaur egun, hainbat enpresa daude INNOVABIDE sarean. Neurri oso desberdinak dituzte eta arlo guztietakoak dira: garraio, industria, zerbitzuak e.a.



ZER EMATEN DIZU SAREAK

- Beste batzuekin **konpartitu** eta elkarrekin ikasteak zuen egunerokotasunean hobetzea esan nahi du. Sarean modu kolaboratiboan lan egiteko talde-tresnak eta erreminta teknologikoak jarriko dira. Enpresa bakoitzak baloratuko du zer, nola eta noraino joan nahi duen partaidetzan. Zuzenean konpartitzeko, informazioa jaso eta **esperientziak** partekatzeko topaketak ere antolatuko dira.
- Presentzia **Sare Sozialetan** Bide-Segurtasunaren alde lan egiten duen enpresa bezala eta zuen partaidetza lau haizetara hedatzeko.
- Bide-Segurtasunaren alorrean **praktika** onen mailarik altuena lortzen duten enpresak **errekonoizimendu** ofizial eta publiko baterako proposatuko ditugu, Trafiko Zuzendaritzak euskal gizartean aurrean saritu ditzan beraien konpromezu eta emaitza onengatik.